

## BENEZKO IRAKURGAYA

---

Tolosatik lagun bi  
agor ill batian  
gogoz atera giñan  
Beñez-era ustian.  
Zeruko urdiña garbi  
zegoan artian,  
eta belaun indarrak  
aitu bitartian,  
chit ondo gijoazen  
naiz gure kaltian.  
Ibar eta basoak  
utzirik atzian,  
laister arkitu giñan  
turmoi lañu pian.  
Chimistaren keñura  
odoi beltz tartian,  
Bulkano begira zan  
gabaren atian.

Argi nabar gorriya  
mendi muturretan  
bazirurin zeudela  
su bizi galdetan;  
lurrandardarakua  
senti zan oñetan,  
ezin balitz bezela  
zutik egon bertan.  
Ichas zabalak ere

aize indarretan,  
orro egiten zuben  
goituaz bagetan;  
gogorikan sendona  
iduripenetan  
an gertatzen zanakin  
errej jarriko zan.

Ekaitz izugarriya  
gaban laguntari  
gure gain zetorren, ta  
geunden oso larri;  
illuntasuna baizik  
iñondik ageri  
ez zan mendi ayeten  
arras bildulgarri:  
Inpernuko etsayak  
danak buruzari  
inguruau zebiltzan  
zeletatzen guri;  
ez gendion itzikan  
egiten alkari,  
kordia galdurikan  
negoan iya ni.

Ontan chara tartetik  
aborrots aundiya  
gureganatutzen zan

ikaragarriya;  
 Laister irte zan andik  
 aiton gudariya,  
 irte leiken bezela,  
 mundu galgarriya;  
 kopet illun zimurra  
 zaintzuba guztiya,  
 begiratua berriz  
 su chingar biziya.  
 Igas egin nai eta  
 ezin ibiliya,  
 aren burni besotan  
 gendukan gerriya.

Ego aize gogorrak  
 luma bezin errez,  
 gudariyak besotan  
 zedukan indarrez,  
 jaso giñuzen biyok  
 Ibarmendi gañez.  
 Iltzaldegi<sup>(1)</sup> illuna  
 oñazkarran bidez,  
 igaro zun aitonak  
 algara egiñez.  
 Arri zorayo utzi ta  
 beyan gure aurrez,  
 suzko leza bezela,  
 betia kanborrez,  
 erreka bazterrian  
 ageri zan Beñez.

Begiratu zorrotza  
 zuzenduz gain beera,  
 kolpez astindurikan  
 biurtu zun ega  
 iškanbillla gogorrak

zebilitzan aldera:  
 Doi—doi, nere buruba  
 zorabik emana  
 goiberatua neukan  
 gudariyengana.  
 Irrinzi ta ojuak  
 erruz guregana,  
 naspill izugarrian  
 barru zetoztela,  
 bultza zigun aitonak  
 zulo latz batera.

¡A! Maite detan amacho  
 barren barrengoa,  
 aspaldiyan ainbeste  
 sufritutakoa;  
 ¡zenbat aldiz semeak  
 biotza jasoa,  
 errukitu nayean  
 gure Jaungoikoa,  
 euki zun, bai, negarrez  
 beterik kolkoa!  
 ¡Zenbatan zitzaizkidan  
 etorri gogora,  
 etortzen dan bezela  
 begira malkoa,  
 zure naitasuna ta  
 nere bekaizkoa.

Eriotza ta suba,  
 antsi eta algara,  
 sutunperi aundien  
 durrunba dardara;  
 leza zulotatikan  
 iškanbil nabarra  
 ateratzen zan bizi

(1) Espacio.

arrotuaz garra;  
aldizka zetorkigun  
irri eta farra  
egiñaz, lur petika  
etsai Luzbel-tarra.  
Nere biotz gaišoa  
mintsu ta bakarra  
elgaitzaren mendean  
ze goan igarra.

Burukan ill ta bizi  
Uzturre menditik  
o gei milla gudari  
alde banatistik  
azaldu ziran, eta  
lañuak arturik,  
inguruko erreka  
garbi denetatik,  
etzetorkion bada  
odola besterik.  
Emakume eder bat  
zauriaz beterik  
eta bere oñetan  
leoya etziñik  
odoi gorri tartian  
ikusi nuben nik.

Leizarango erreka  
eriotza zale,  
odolez ornitua  
zioan asarre,  
eta Belabitatik  
oro bat adarre.  
Suzko gurdia batian  
Bulkano ta Marte  
ikus nituenetik  
neregandu arte,  
gertatu zana ziur

esan ez nezake:  
kezka illkorra, nere  
burubaren jabe  
egiñikan gelditu  
nitzan korde gabe.

Leoyaren marruak  
negola aditzen  
entzunik urrutiko  
mendiyak oyartzen,  
nere biotz barrena  
asi zan poztutzen,  
lengo naigabe danak  
zorion biurtzen.  
Nola egun sentian  
orriyak zabaltzen  
lore batzuek dira  
Mayatzian asten,  
laztancho bat artuaz  
ala zijoazen  
nere begi anpuluk  
berriz argirotzen.

¡Zenbat atsegin eta  
zer goiz pozgarriya  
musika gozoakin  
onez etorriya!  
Illunarra urratzen  
asirik argiya,  
lorez apaindurikan  
ze goan guziya;  
saroi berdiak eta  
Uzturre mendiya.  
Onen gañez ageri  
zan miragarriya,  
Espaiñtar leyalaren  
amacho garbiya,  
buruan zeukalarik

koroi, eguzkiya.

*Pipiripi egiñaz  
chori kantariya,  
mull, mull, errekachoa  
labainkor biziya;  
danak zabaldu nayan  
pozez on berriya,  
laister irago zuten  
Euskaldun erriya.  
Nere laguna ta ni*

zoraturik iya,  
jaisten gijuazen, ta  
aingeru zuriya  
aurreratu zitzaignun  
lañuaz jantziya.  
Eskubetan zemakin  
omen bat aundiya,  
urrezko ardarian  
onela jarriya:  
¡Biba Ibero-tarrak!  
¡Biba Euskal-Erriya!

EMETERIO ARRESE.

Tolosan, 1896-ko Otaillaren 4-an.

## Noticias bibliográficas y literarias



*Ráfagas.* —Nuestro distinguido amigo y compañero en la prensa D. Enrique de Olea ha publicado un nuevo tomo de versos.

Titúlase *Ráfagas*, y en la multitud de composiciones que contiene da el señor Olea nuevas y brillantes muestras de su inspiración y de sus reconocidas aptitudes de poeta facil y galano.

El libro del señor Olea hállase de venta en las principales librerías al precio de dos pesetas.

